

Heziketa bereziaren inguruko legediaren garapena Euskal autonomi erkidegoan

Lucy Sepulveda

Elena Bernaras

Concepcion Medrano

Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GAKO-HITZAK: Heziketa berezia. Legediaren garapena. Normal-kuntza. Inklusioa.

0. SARRERA

Euskal herritarren beharrekin eta bereziki, haien hezkuntzarekin kezkatuta, Eusko Jaurlaritzak neurri zehatzak hartu eta baliabide egokiak jarri ditu martxan azken urte hauetan. Normalkuntza kontzeptutik sortutako hezkuntza politikak izan ziren abiapuntua. Normalkuntzak ikasle guztien eskolatzea bermatu nahi zuen. Printzipio honen ondoren, muinbakar kontzeptua berea egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Eskola muinbakarra izateak ikasle guztiek ikaskuntza-esperientzia berdina izan behar dituztela esan nahi du.

Gelan aurkitzen diren egoera desberdinetatik abiatuz, hezkuntza muinbakarra sendotzea aukeratu da eta hartutako erabakiak, Euskal Herriko sare eta hezkuntza-baliabide guztietan aplikatu dira. Era berean, indar handiago eman nahi izan zaie eskolek bere kompetentzia barruan har ditzaketen irizpideei, horrek emango baitie hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen zailtasunak modu inklusiboz orekatzeko ahalmena.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioak, hezkuntza politikaren sorrera ahalbideratu du zenbait dekretu, agindu eta erabakien bidez, eta hauen guztien bitartez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen beharrei modu egokian erantzuteko orientabideak eman eta baliabide egokiak eskaini ahal izan dira.

1. HEZKUNTZA BEREZIAREN ARAU-SORTZEAREN ERREFERENTZIAZKO EREMUA ETA BERE EZARPENA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

Hezkuntza gaietako Transferentzia eta Konpetentzietako Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomi Estatutuak, Lehenengo Tituluaren 16. artikuluan dio: «Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egiteke».

Hezkuntza eremuko transferentzia honen ondorioz, eta lege hauetan oinarriturik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Hezkuntza Berezirako Nazio Plana egokitu zuen (1978ko apirilaren 12an onartua, Urrituen Hezkuntza eta Arretarako Patronatuko 19. buletinean aipatua. 1991:13) eta horren ostean, Hezkuntza Berezirako Euskadirako Plana diseinatu eta idatzi zuen. Plan hau, 1982ko ekainean onartu zuen Hezkuntza Sailak, garai hartako gizartearen aniztasunean eta pertsona eta kolektiboen heterogeneotasunean oinarrituz.

Dokumentu horretan ohiko eskola hartzen da erreferente nagusi eta «Plan horren ondorioz, proposatutako eraldaketa-prozesua erraztuko zuen oinarritzko azpiegituraren garapena egin zen» (Eusko Jaurlaritzak, 1988:13). Planaren filosofia honako printzipio edo lerro pedagogiko nagusietan oinarritzen da:

1. Bank-Mikkelsen-ek formulatutako normalkuntza-printzipioa. Printzipio honen arabera, ikasleria guztiaren eskolatzea bermatu behar da.
2. Integrazioaren filosofia. Printzipio hau espezializazioaren filosofiarren kontrakoa da eta ondo baloratua dago.
3. Zerbitzuen sektorizazioa. Integrazioaren filosofiarekin bat dator eta zentralizazioaren printzipioaren kontrakoa da.

1982ko diseinu honek, ordura arte heziketa bereziaren eremuan zeuden zerbitzuen filosofian eta egituraren erabateko aldaketak eta hobekuntzak proposatzen zituen, eta hala islatu zen 1988an argitara eman zen ondoko txostenean: «Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza egokirako, Hezkuntza-sisteman egin beharreko hobekuntzak».

Hari honi eta oinarritzko printzipio horiei jarraiki, Planak bi helmuga zehaztuta iritsi nahi du:

- Ohiko eskola erreferentziazat hartzen da eta handik aurrera proposatutako aldaketen prozesua erraztuko duen oinarritzko azpiegituren

garapena sortzen da; horrek esan nahi du, batetik, Euskal gizartean dauden pertsona desberdinak onartzea eta bestetik, ohiko eskola erreferente bakarra izatea. Ordura arte Euskal Autonomi Erkidegoan hezkuntza-eremuan urrituzat jotzen ziren ikasleen beharrak asetzen zituzten heziketa bereziko zentroen kontra egotea, alegia.

- Eskolan sektorizazioa onartzea, hots, integratutako ikaslearen premiei erantzutea bere giro naturalean. Ideia hori, noski, zentralizazio ideiarekin kontra dago, zeren eta subjektua mugitzen den giro natural eta sozialetik kanpo integratzea ez bailitzateke teoriarik ez egokia ez aproposa.

Gai hau jorratzerakoan, Ezinduen Integrazio Sozialerako Legera jotzen du Planak, LISMI izenez ezagutzen dena (apirilaren 7ko 13/1982 Legea. BOE, 103. zkia, 1982ko apirilaren 30) Bestalde, Euskal Erkidegoaren eremuan, zati batean 8/1982ko maiatzaren 20ko Euskal Autonomi Erkidegoko Zerbitzu Sozialen Legera eramatean gaitu (1982/6/2, EHAA), non Lehenengo idazpuruan, 3. atalean 5. puntuan zera dioen: «Ezinduei hezkuntzaren, lanaren eta gizartearen alorretan ahalik eta gehien bertakotzeko, edo hala egokituz gero bere gaitasunak berariazko zerbitzuen bidez hobetzeko laguntza ematea». Hau baieztatuta, lege berak 5. atalean, 4. puntuan gizarteratzearen eta Printzipio Orokorren inguruan zera adierazten du: «Gizarte-zerbitzuek, herritarrek bere familian edo gizarte-giroan jarraitu dezaten joko dute edo, hala behar izanez gero, arauzko gizarte-giroan birsartzea, horretarako, ahal dadin neurrian, gizarte-beharrei erantzuteko agizko bidez baliatuz».

Lege-araudiz babestutako gizarte errealitate berri honetan, Heziketa Bereziko irakaskuntza arautzeak (1982-10-7, EHAA) aurreikusitako Plana bost urterako egin eta egokitzeko parada eskaini zuen. Xedapen berri hauen bidez, ordura arte izandako hezkuntza-sistemaren zenbait alderdiren hobekuntza antzematen da; hobekuntzen artean hauek azpimarratuko genituzke: Heziketa Bereziko ikasleen definizioa, eskolatu ahal izateko beharrezkoak diren gela motak, profesional anitzeko ekipoaren aurre diagnosiaren bidez emandako orientabideak, premia bereziak dituzten ikasleriaren banakako espedienteen sorrera, eta hezkuntza-zentroetan lan egin behar duten profesionalen tipologia.

Erregulazio honek ere, Lurralde Historiko bakoitzean, Heziketa Berezirako Zentro Koordinatzailea sortzen du eta bere helburua, lurralde bakoitzean egiten ziren heziketa bereziko jarduera guztiak koordinatzea zen. Hezkuntzaren Berrikuntza Planen barruan, zentroetan eta geletan maila desberdinetan gertatu zen aldaketa-prozesua azpiegitura normatiboaren emaitza izan zen. Horren ondorioz, hezkuntzaren integrazio- prozesuko garai berria garatu zen eta horrezaz gain, azpian zegoen helburu nagusia lortu zen, hots, premia bereziak zituzten ikasleak eskola eta zentro arruntetan integratzea.

Gogoan izan behar dugu, hala ere, Euskal Autonomi Erkidegoan hartu ziren erabaki hauek Warnock Txostenean (1978) oinarritutako pentsamenduen ildotik zetozela. Txosten hau heziketa bereziko birkontzeptualizazioan eta ondorengo erreformen aitzindari izan zen.

Dokumentu hau kontuan hartuz, Euskal Autonomi Erkidegoan *hezkuntza-premia bereziak* hitza geureganatu genuen eta hori islatu zen «Eskola muinbakarrekoa eta integratzailea» (1988) liburuan. Bertan, argi eta garbi esaten da *hezkuntza-premia bereziak* kontzeptu moduan ulertu behar dela, erlatiboa eta interaktiboa, ikaslearengana baino urrutiagora doana, gizarte eta hezkuntza testuinguru zehatzean kokatuz. Ideia nagusia zera da: hezkuntza berezia, hezkuntza sistema arruntaren partaide den heinean, baliabide, tresna eta laguntzaz hornitu behar da eta ikasleriaren ezaugarrietara egokitzeko aukera eman behar du. Horrela, sistema guztiaren kalitatea hobetu eta premia bereziak dituzten ikasleen eskola-porrota saihestu ahal izango da, haien integrazioa bermatuz aniztasuna modu integratzailean onartuko duen muinbakarreko eskolan, berau izango baita gizarte demokratiko eta askotarikoa eraikitzeko ezinbesteko abiapuntua.

Erresuma Batuko 1981eko Hezkuntza legea inspiratu zuen (Eusko Jaurlaritza, 1999:17; Wilfred, 1985; Jiménez Lara, 2001) Warnock (1978) txostenak geroago oinarritzko erreferente izan zen Eusko Jaurlaritzarentzat. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogia Berrikuntza Zuzendaritzak berea egin zuen hezkuntza-premia bereziak kontzeptua, premia bereziak zituzten ikasleen hezkuntzan hobekuntzak egiteko aukerak eskainiz.

2. HEZIKETA BEREZIRAKO OINARRIZKO LAGUNTZA SISTEMAK

Era berean, berrikuntza pedagogiko eta hezkuntza berrikuntzako planen barruan oinarritzkoak diren bi egitura aztertzea beharrezkoa da, berauek sistema finkatu eta integrazioaren mekanikarako oso lagungarriak baitira. Lehenengo eta behin, jarduera arloa heziketa berezira mugatuz eta hezkuntza mailako kompetentzien transferentziei esker, OHOrako eskola-sistemari laguntzeko, talde multiprofesionalak sortu ziren, 1983ko uztailaren 12ko (irailaren 8ko EHAA) eta 1984ko ekainaren 1eko (uztailaren 10eko EHAA) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko aginduen bidez.

Geroago, 1984ko apirilaren 26ko aginduak (maiatzaren 29ko EHAA) eskola aurreko eta O.H.O.-ko ikastegietako euskararen eta euskarazko irakaskuntzarako laguntza-taldeak arautzen ditu eta azkenik, urte berean, 1984ko ekainaren 27ko Aginduaren bidez (uztailaren 10eko EHAA), irakaskuntza ez unibertsitarioetarako Laguntza eta Baliabide zentroak sortzen dira, oinarritzko irakaskuntza mailarako, handik gutxira irakaskuntza

ertaineko mailetara zabalduko direnak. Jokamolde honetan oinarrituz, eta hezkuntza sistemako laguntza zerbitzuen aurrerapen eta gaurkotze prozesu honi jarraituz, orientabide pedagogikorako zentroak sortzen dira (OPZ), berauen arautegia eta funtzionamendua 154/1988 Dekretuak agintzen duela.

Talde multiprofesionalen eta Heziketa Bereziko Zentro Koordinatzaileen zeregina, batetik, ikastetxeetan eta gela berezietan dauden ikasleen diagnosi, terapia eta segimendua gauzatzea da, eta, bestetik, profesionalen eta ebaluazio pedagogikoen trukaketa egitea. Hain zuzen ere, profesional anitzeko taldeak, esan bezala, diagnosi, terapia eta jarraimenduko oinarritzko funtzioak egiteko sortzen dira, eta honela zehazten da: «Berarizko Hezkuntza-alorrari dagozkion egitekoak Askotariko Lanbidedun-Talde batek edo batzuk, Sikologjalariek eta Pedagogjalariek osatua, beteko dituzte» (6.art).

Funtzio hauek 1982ko irailaren 2ko Hezkuntza Departamenduko Aginduan ere azter daitezke, bertan Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak arautzen baitziren. Heziketa bereziko ikasleen eskolatzearen inguruan,aldiz, egin beharreko diagnosi eta orientabideak egingo zituen erakundea aipatzen zen 11. artikuluan: «Lurralde Historiko bakoitzean Heziketa Bereziko Zentroetako laguntzarako Askotariko Lanbidedun-Taldeak izango dira».

Ildo arautzaile berdintsuan, azpimarratu beharra dago, ekainaren 14ko 154/1988 dekretuan (EHAA, 88-6-24), Pedagogiazko Aholkularitza-Tegien sortze eta jardute-modua araupetzen dela. Hauek sortzeko xedeen artean hauxe aipa daiteke: «eskola-barrutietan antolatutako aldeak bultzatzea eta horrela egituratutako hezkuntza-alorreko benetako eta kanpoko laguntza izatea».

Horretarako, «Pedagogiazko Aholkularitza-Tegiak ditugu hezkuntza-jokabidearen ardatza eta bere jakineko eskola-barruti batetako unibertsitatekoen beste mailetako ikastegiak izango dituzte jardute-eremu». Halaber, haien helburua hezkuntza sistemak heziketarako beharrezkoak dituen laguntza-sistema desberdinez hornitzea da, eta berarengan eragina duten elementu desberdinen garapena eta ekintza sendotzea. Zentzu honetan, «Pedagogiazko Aholkularitza-Tegiak (P.A.T) zonalde mailako hezkuntza-lanabes dira, hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako eta unibertsitatekoen besteko mailetarako laguntza-zerbitzu gisa antolatua», eta eremu horretan, hain zuen ere, agertzen da Hezkuntza Berezia.

PATen sorrera oso ondo zehaztua agertzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako Txostenean (1988). Emandako gomendioen artean aurreikusten da PAT Mugatze Pedagogikoko Komisioen burua izango dela eta era berean, ikastegiko laguntza baliabideak ere badirela. Haien zeregin zehatza, ikastegietako profesionalen aholku eta orientabidea ematea izango da, nola premia bereziko beharren ebaluazioan eta erantzunean, hala hezkuntza eta curriculum-egokitzapenen orientazioan eta gainbegiratzean.

Era berean, PATeko irudiaren presentzia, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) aurrekoa da, Euskal Eskola Publikoaren Legea baino lehenagokoa ere, (otsailaren 19ko 1/1993 legea, EHAA 93-02-25) eta horren ondorioz, bere egitura ez dator bat oraingo Euskal Hezkuntza Sistemaren Antolamenduarekin eta, hortaz, beharrezkoa izan da hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak birmoldatzea eta berregituratzea.

Azken hamarkadan gertatutako aldaketa sozialek premia eta ikuspegi desberdinak sortu dituzte, momentu honetako errealitate eta beharrek bat datozenak. Horregatik, eginkizun integratzailea modu askatuan eta zaballean erraztuko duten laguntza zerbitzuak indartzea beharrezkoa dela ikusi da eta horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak egindako proposamenari jarraiki, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortu dira, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren bidez. 2. Kapituluaren 3. artikulua arabera, «Berritzeguneak zonaka edota lurraldeka erabiliko diren tresnak dira hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako, eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetara zuzendutako Laguntza Zerbitzu gisa jardungo dute».

Entitate berri honek, aholkularitza, prestakuntza, berrikuntza, esperimentazio eta ikerketaren inguruko xede eta funtzioak betetzen ditu, jokoera-eremu zabalagorako bidea ematen du; hezkuntza-ekintza onartu, kudeatu eta planifikatzea dakar, eta ondorioz, ikasle guztien hezkuntza-premien arreta koherentea eta holistikoa lortuko da eta egungo eskola aniztasunari modu egokiagoan erantzungo zaio.

3. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN HEZIKETA EGOKIRAKO HEZKUNTZA SISTEMAN EZARRI BEHARREKO HOBEEKUNTZEN INGURUKO ANALISIA

Euskadirako Heziketa Berezirako Planean adierazten den filosofiarekin erabateko adostasunetik abiatuz, eta helburu integratzailearen inguruko dinamikarekin jarraituz, heziketa bereziaren arloan ikusmolde berria garatu eta sakontzeko beharra sortu zen. Irizpide honen eta bestelako azpi irizpideren arabera, «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egoki ikusi zuen Plan honen garapen eta bilakaerari buruzko hausnarketa egitea, baita egungo egoeraren analisisa ere, berau hobetzeko asmoz» (Eusko Jaurlaritza, 1988:15). Horretarako, 1987ko irailean, heziketa bereziko batzorde bat osatu zen, bere helburu nagusia hezkuntza arloan neurriak eta jokaera le-roak ezarriko zituzten arauak gomendatzea zuena.

Aukeratutako metodologia inplikaturako erakunde, kolektibo eta pertsonen uztardura aktiboaren ondorio izan zen. Guztien nahiak eta kezkek biltzen zituen eta proiektu bateratua eta aplikagarria bihurtzeko asmoa zuen. Paraleloki, osatutako Batzordeak, Hezkuntza eta Zientzietako Minis-

terioarekin kontsulta-prozesua ireki zuen, baita beste Autonomi Erkidegoekin, eta inguruko herrialde eta nazioeko eta nazioarteko erakunde komunitarioekin ere, egindako ekarpenak sendotasun handiagokoak izan zitezten. Bertan idatzitako ondorioak Hezkuntza Bereziko Txostenean agertu ziren.

Emandako gomendioak «Hezkuntza-premia bereziak dituzten hezkuntza egokirako hezkuntza-sisteman sortu beharreko hobekuntzak» dokumentuan agertu ziren eta hiru kapitulu eta ondorio orokorretan ordenatu zen. Hezkuntza-sisteman sortu beharreko hobekuntzen garrantziaz ez zegoen zalantzarik eta «(...) estatu mailako edo nazioarteko hezkuntza behar berezien arretan gertatu beharreko eraldaketa pedagogikoko mugimenduaren alderdi koherentea» osatzen zuen.

Hobekuntzen Txostenak ematen dituen iradokizunak bi irizpideren arabera azter daitezke:

3.1. Jarduera printzipioak

I Kapitulu Hezkuntza Bereziaren arloko jarduera printzipioei buruzkoa da eta bertan zehazten da hezkuntza-premia bereziak dituzten haur eta gazteen hezkuntzaren helburua guztientzat berdina izan behar duela. Horrela, euren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko eskubidea dute, bere ikaskideekin normaltasunez erlazionatuz eta eskura dauden hezkuntza-aukera guztiak aprobetxatuz.

Horretarako, sistemak politika positiboa egin behar du, batez ere, desabantailak eta behar handiak dituzten ikasleen alde. Hezkuntza berezia jasotzen duen ikaslearen premiak erlatiboak, aldibaterakoak eta interaktiboak dira, eta horrek zera inplikatzeko du: «Integrazio prozesuak hezkuntza-prozesuko ezinbesteko elementua izan behar du eta sisteman parte hartzen duten guztiek (...) guztiontzako Integrazio printzipioa onartu behar dute» (Eusko Jaurlaritza, 1988:22).

Kapitulu honen erdiko planteamenduak hiru alderdi garrantzitsu hartzen ditu:

- Helburua: guztiontzako hezkuntza egoki eta aproposa.
- Aukera-berdintasunaren aldeko ekintza positiboa.
- Integrazio-Printzipioaren praktika.

Ondorioz, jarduerak honako hauek izango dira:

- Ikastetxe eta komunitatean jarrera-, fokatze- eta praktika- aldaketa.
- Hezkuntza goiztiarra eskaintzea (0-3 urte) hezkuntza-premia bereziak detektatu eta identifikatu diren haurrengan.
- Erabakiak hartzerakoan ikasleen eta haien familien inplikazioa.
- Ikasle guztien hezkuntza egokirako, eskola-sistemak behar duen baliabide eta laguntzen garapena eta egokitzapena.

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta zuzenerako, gizarte- eta osasun-zerbitzuekin lan bateratu eta koordinatua.

3.2. Batzordearen gomendioak

II kapituluan, Heziketa Bereziko Batzordeak egiten dituen zenbait iradokizun Eskola muinbakarra ereduaren ingurukoak dira: «bere barnean aniztasuna modu integratuan onartzeko asmoa izango du, ikasle desberdinak bateratzea oinarritzko erreferentziatzat hartuko du (...) heterogeneotasunean tratamendu integratzailea izateak zera esan nahi du, batetik, aniztasuna onartzea kolektiboaren aberastasunerako, eta bestetik, desberdintasuna berea egitea trebetasun batzuk garatzeko (...), bere egoera pertsonaletik eta erreferentzia soziokulturaletik abiatuz...» (Eusko Jaurlaritza, 1988:27).

Jarduera marko honetan aurki dezakegu «hezkuntza testuinguruaren ebaluazio zaindua, eskolak modu egokian testuinguru sozial zehatzari erantzun diezaion», muinbakarreko eta integratzailea izango den Ikastetxeko Plana landuz. Halaber, plan hauek muinbakartasunean eta malgutasunean oinarriturik egon behar dute, hezkuntza-premia berezien banakotasunean eta erantzun egokietan, desabantaila eta behar handieneko egoeran dauden ikasleen alde.

Eginbehar mota hau aurrera eramateko, txostenak Irakasle Tutoreak behar dituen laguntzak edukitzea gomendatzen du, eta bere arduren eta esku-hartzearen aukera zabala honako hau izango da:

- Ikasgelako testuinguruan, ikaslearen egoera pertsonala, bere jokaera eta funtzionamendua ezagutzea.
- Bere ikaskuntzaren garapena jarraitu (interesak, baloreak, autonomiarako gaitasuna, egokitze-prozesua familian eta gizartean).
- Ikasketa eta betebeharreran orientatu, curriculumaren egokitzapena egin, etab.

Helburu hauek bete ahal izateko, irakasle tutoreak eta irakasle-taldeek laguntza desberdinak beharko dituzte, batik bat, hiru motakoak:

- Formazio iraunkorra: ikastetxeko planaren barruan, hezkuntza planari erantzutea izango da bere helburua.
- Bere eguneroko lanean lagunduko dioten laguntza profesionalak jasotzea.
- Bere eginkizuna optimizatuko duen barruko eta kanpoko ebaluazio-sistema, bertan ikastetxeko hezkuntza-erantzunak testuinguruko beharrak islatuko ditu. Modu honetan, ikastetxeko planak komunitatearen eskaerei era egokian erantzun ahal izango dio.

Egite-eremuaren inguruan, ekintza hauen integrazioaren eta jarraipenaren aldeko konpromiso-irizpideak, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren eta

derrigortasunaren ondorengoko etapetara ere zabaldu behar dira, arautu gabeko irakaskuntzak eta helduen ikaskuntza barne sartzen direla.

3.2.1. *Curriculum arrunta hezkuntza-behar bereziei erantzuteko*

Txostenak aipatzen dituen egin beharreko hobekuntzen analisiaren barruan, arrunta deritzon curriculumaren markoa ezin da ahaztu, bertan hezkuntza-premia bereziko egoerak ere sartzen baitira.

Batzordearen ustez, ezin da «hezkuntza bereziko curriculum eta curriculum arruntaz hitz egin hezkuntza-errealitate desberdinak bailiran». Izaera irekiko curriculum arrunt bakarra dagoela zehazten da, non erlatiboak eta interaktiboak diren beharrei aurre egiteko, komenigarriak diren egokitzapenak eta aldaketak egin beharko diren. Egokitzapen curricularrak curriculumari egin behar zaizkion aldaketak dira, gelan sortzen diren hezkuntza-beharrei aurre egiteko».

Horrela, curriculum arrunta zabaltzeak egokitzapen curricularrak garatzeko eta egiteko bidea ematen du eta bere abiapuntua hezkuntza-beharren identifikazio- eta ebaluazio-kontestualizatua izango da. Gutxienez, lau dira Batzordeak azpimarratu eta identifikatzen dituen elementuak (31.orr):

- Hezkuntza beharraren izaera interaktiboa.
- Beharrak baloratzeko prozesua, curriculum a ardatz hartuz.
- Curriculumaren beraren zehaztasun maila.
- Curriculum horren sarbiderako baliabideak.

Halaber, txostenak dio haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza mailako proposamenek, egokitzapen curricularrak egiteko nahikoa aukera eskaintzen dituztela eta goi-mailetan, ohar berezi batzuk eskaintzea komenigarria dela, beharrezkoak diren curriculum egokitzapenen garapena errazteko.

3.2.2. *Hezkuntza erantzuna ikastetxe arruntean*

Atal honetan honako hau aipatzen da: «Ikastetxe arrunta, behar dituen baliabidez horniturik, ikasle guztiei erantzuna emateko hezkuntza espazioa da». Honen inguruan, Batzordeak zera gomendatzen du:

- Hezkuntza autoritateek Ikastetxeko Planean hezkuntza-premia bereziak aipatuak izan daitezela, dagozkien curriculum egokitzapenak egin eta Plan horri aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak izango direla zainduko dute.
- Goi-mailako irakaskuntzetan, zereginek helduarora modu normalizatuan iristea erraztuko dute.
- «Etxegintzatikako oztopoak kentzeko» arautegiaren aplikazioa (Abenduaren 19ko 291/1983 Dekretua), premiazkoa da eta ikastetxe guztietan hirigintzako trabak pixkanaka kentzeko plan sistematikoa egitea beharrezkoa da.

Alde batetik, Batzordeak hezkuntza-laguntzez hornitzeko iradokizuna egiten du eta jarduera-eremua hiru motako baliabideetan zehazten du:

- Irakasle aholkularia. Bere funtzio zehatza irakasle tutorea eta irakasle-taldeari curriculumaren egokitzapenaren garapenean laguntzea eta orientatzea da.
- Irakasle ibiltariak. Ikasleen premien arabera, irudi profesionalen beharra antzematen da (logopedak, fisioterapeutak, irakasle espezialduak, laguntzaileak, etab.), ikastetxe arrunten hezkuntza-premia bereziei erantzuteko baliozko laguntza eta ekarpenak egingo dituztenak.
- Balio anitzeko gelak. Hauetan ikasleak taldekatzeko irizpidea, ahal den neurrian, ziklo bateko adinetara egokitzea izango da.

Batzordeak horretarako ematen duen gomendioa da zerbitzu-integratzaile honetan bere lana egiten duten profesionalek PATetako zuzendaritzapean egotea, eraginkortasun eta jarraipen hobea lortzeko.

Bestalde, Batzordeak balio anitzeko gelen inguruan dio, zenbait egoeratan, curriculumaren egokitzapenak bakarkako edo taldeko lana eskatuko dutela. Gela arruntak eskaintzen ez dituen bestelako baldintzak beharko dira (1988:40), horretarako balio anitzeko gelak jartzea gomendatzen du. Gela hauek ikastetxe arruntetan hezkuntza-espazio eta inguruneak izango dira eta erantzun behar diren premien arabera, beharrezkoak diren material eta giza baliabideez horniturik egongo dira (1988:40).

Ematen den beste gomendioa da «material eta giza-baliabideen heziketa bereziko ikastetxeetatik, ikastetxe arruntera igarotzea pixkanaka» (1988:43). Pentsamendu hau bat dator, batetik, ikasleek inguru murriztailean gero eta gutxiago egoteko eskolatzeko-printzipioarekin eta bestetik, ikasle guztiek eskola bera partekatzearen nahiarekin, horrela, bereizketa-espazioak saihestea lortuko da.

3.2.3. *Ikastetxeetako laguntza-mekanismo eta zerbitzuen zentralizazioa hezkuntza-barrutian*

Atal honetan, Batzordeak lehentasuna ematen die honako zerbitzu hauei:

1. Barrutiko Batzorde Pedagogikoa (BBP). Bere helburu nagusia nauxe da: «(...) hezkuntza sistema barruti mailan izaera integratzaile eta optimizatzailearekin jokatzeko ari dela ziurtatzea, ikasle guztien hezkuntza egokia baieztatuz, behar eta desabantaila handien dituztenen jarduera positiboaren printzipioa aplikatuz» (Eusko Jaurlaritza, 1988:44).

Testuinguru honetan, BBPk agindu eta esku hartuko du ondorengo egoeretan: arreta goiztiarrerako baliabideen horniketean (0-3) eta bere eskolatzeko zehar; balio anitzeko gelako zatikako edo osoko

eskolatzea; material eta giza baliabideen hornitze gehigarria, hala nola, hirigintzako trabak kentzea; material bereziaren edo egokitu-tako altzarien horniketa, eta material ez-pedagogikoa; ikastetxeetako balio anitzeko gelen horniketaz; irakasle ibiltariez hornitzea edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruzko gomendio egokiak ematea.

2. Pedagogi Aholkutegiak (PAT). Barruti mailan lan eginez, laguntza zerbitzu moduan eraten dira «hezkuntza-premia bereziak ebaluatze, orientatzeko eta ikastetxeetako profesionalen gainbegiraketa egiteko» (Eusko Jaurlaritza 1988:46). Irakasle aholkulari eta pertsonalaren bidez, curriculumaren egokitzapena orientatzen eta gainbegiratzen dute. Gai honen inguruan eta atal berean, Batzordeak PATi egiten dion gomendioa honako programa hauetan zentratzen da:

- Ikasteko gaitasuna garatzeko programa
- Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleentzako hezkuntza-programak
- Egokitze soziala garatzeko programa
- Entzumen eta hizkuntza-programak
- Arreta goiztiarreko programak
- Lan-okupaziorako programak, goi-mailetan sartzea eta helduaro-ra bideratzeko programak.

3.2.4. *Gobernu eta Lurralde mailan Hezkuntza Sailak bultzatu beharreko jarduera osagarriak*

Heziketa Bereziaren eta Hezkuntza Integrazioaren inguruan etorkizunean egingo diren ekintzek batzordeak egindako txostenean gomendatzen eta ematen diren aholkuak jarraitu beharko dituzte. Hausnarketa-dinamika honetan, proposatutako jardueren artean, honako hauek azpimarratuko ditugu:

1. Ikastetxeetan eta komunitatean jarrerak, ikuspegiak eta praktika-moduak aldatzeko neurriak hartzea irakaskuntza muinbakarreko eremuan harmonikoki sakonduz, aniztasunera irekiz eta marjinazioak hezkuntza eta gizarte mailan eragiten dituen desabantaila eta desberdintasun egoerak gutxituz.
2. Indarrean dauden legeak eta arautegiak berraztertzea, beharrezkoak diren aldaketak egiten eta bere filosofia, terminologia eta ekintzak hezkuntza-beharren inguruko ikusmoldeetara egokitzen joateko. Modu honetan, hizkera berri hau hezkuntza-sistemako profesionalak jarraitu ahal izango dute, egin beharreko txostenak egiterakoan, irizpideak batuta azal daitezten.
3. «Euskadiko Hezkuntza Baliabidetegien Zentro Espezialdua» sortzea, honako funtzio hauek izango dituena:

- Informazioa, esperientziak eta ikerketen ondorioak zentralizatzea, hezkuntza-testu eta/edo materialen egokitzea eta argitaratzea, baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin erlazionatutako profesional eta familientzako bideratutako materiala sortzea eta hedatzea.
 - Ebaluazioaren inguruan, hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko testuinguruari atxikitako tresnak egingo dira, baita curriculumaren egokitzapen-ereduak ere. Irakasleen hobekuntzan kolaborazioa proposatzen da, kolaborazio horrek irakasle aholkulariengan eragin zuzena izango baitu. Azkenik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza arretarako teknologia berriak ikertzea eta erabiltzea.
 - Kalitatezko hezkuntza bultzatzeko modu integratzaile eta normalizatzailean, Batzordeak txosteneko 59. orrialdean, Hezkuntza Baliabidetegi Espezialduaren sorrera gomendatzen du. Bost jarduerara programa landuko ditu:
 - a) Curriculuma.
 - b) Aholkularitza, ikasketak eta informazioa.
 - c) Prestakuntza.
 - d) Ikerketa eta teknologia berriak.
 - e) Ikasmaterialgintza.
4. Irakasleriaren hasierako eta etengabeko prestakuntza izango da eginkizun nagusienetakoa, aniztasunak eta premia bereziak dituzten ikasleen integrazioak, ikasle horien beharretara egokitutako eta moldatutako irakaskuntza-estrategiak aplikatzeko gai izango diren irakasleak eskatzen baitituzte.
 5. Ebaluazioa, batzordeak ematen duen gomendioetako bat da eta beronen norabidea lau ekintza bateratutan oinarritzen da:
 1. Aldez aurretik egindako lana ebaluatu behar da batetik, eta bestetik, profesional, baliabide eta ekintza desberdinen eraginkortasuna.
 2. Izaera esperimentalak izango duten profesionalen jarraipenerako eta ebaluaziorako zonak ezartzea, gomendatzen diren aldaketen ondorio esperimentalak modu jarraituan ebaluatu ahal izateko.
 3. Pariseko OCDEko (UNESCoko Behar Bereziatarako Bulegoa) Hezkuntza Berriztapen eta Ikerkuntza Zentroarekin (CERI) hitzarmena egitea eta gauzatzea.
 4. Txostenean aurreikusitako gomendio eta printzipioetarako Jarraipen Batzordea sortzea.
 6. Premia bereziak dituzten haur eta gazteen inguruko sail eta erakunde anitzeko mekanismoen iradokizunak batzea, Batzordearen ustez, premia bereziak ez baitaude zatituak. Horregatik, koordinazio eta

kolaboraziorako ezinbestekoak diren mekanismoak finkatzeko ekin-tzak gomendatzen ditu, premia bereziak dituzten haurren eta gazte-en arreta koherentean eragina izan dezaten, Administrazioako zerbitzu desberdinen esku hartze zorrotza eta alde bakarrekoa saihestuz. Arlo honetan gomendatutako ekintzen artean, hauek azpimarratuko ditugu:

- Sail (Hezkuntza eta Osasuna) eta Erakunde anitzek (Gobernuak, Foru-Diputazioek eta Udaletxeek) osatutako administrazio-sarea finkatzea, toki eta eskualdeka koordinazio egokia bermatuz, premia bereziak dituzten haur eta gazteen beharrak beren testuinguruan ebaluatu ahal izateko eta sortzen diren beharrei ere denon artean aurre egiteko.
- Patzuergo/Erakunde bat sortzea, «...premia bereziak dituzten haur, gazte eta euren familien beharren arretarako sail eta erakundeetatik sortutako orientabideen hausnarketa eta esperimentazio tokia...» (Eusko Jaurlaritza, 1988:65).

Kapitulua bukatzerako, hiritarrek ideia hauek beregana ditzaten, plan bat egitea gomendatzen du Batzordeak. Horretarako eskura dauden komunikabideak erabiltzea gomendatzen du, beti ere, premia bereziak dituzten ikasleen eta haien ordezkarien oniritziarekin. Plan hori txosten hau eusten duten printzipioekin bat datorrena izan beharko du (Eusko Jaurlaritza, 1988:66).

3.3. Estatu eta nazioarte mailan eginiko proposamenen garrantzia

3. kapituluan, estatu mailan eta nazioarte mailan azaldutako proposamenen zerrenda aurkezten da. Atal honetan, «Estatuko eta Nazioarteko Erakundeen eta txosten honen gomendioen arteko koherentzia» (Eusko Jaurlaritza, 1988:69) azpimarratzen da eta interes handiena honako hauetan zehazten da:

- Egiturazko alderdiak, ikasle guztiak maila guztietan heziketarako duten eskubidea onartzea; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako aldaketa metodologiko, antolakuntza aldaketak eta curriculumaren aldaketak eta lan-mundurako sarbidea erraztuko dieten beharrezko laguntzak finkatzea.
- Alderdi kualitatibo-curricularrak, aldeztatik egituratutako prozesua osatu ahal izateko, hasierako prestakuntza eta irakasleen ezagutzak gaurkotzeko planen bidez gauzatuko lirateke.
- Eskola muinbakarraren planteamenduaren barruan, curriculumaren berrikuntza, berrikuntza metodologikoa eta baliabide didaktikoak.
- Laguntza zerbitzuen berebiziko beharra.

— Guztion orientazioa eta konpromisoa: «erabakiak hartzeko prozesuan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eta bere familiekoen inplikazioa, ikaslearengandik gertu dauden programen garapena, bizitza-zikloan zehar ekintzen jarraipena arreta goiztiarreen eta helduarora bideratzeko programen lehentasuna azpimarratuz eta desabantaila eta behar handiko egoeretan daudenen alde, lehentasunezko lana eginez» (Eusko Jaurlaritza, 1999:16).

Hezkuntza-premia bereziak gehitzean, txostenak eskola muinbakararren ideia aztertzea ekarri du. Eskola honek, hezkuntza arruntaren barruan, aniztasuna onartzen du eta honen ondorioz, ikasle guztiei hezkuntza-erantzuna ematea lortzen da, salbuespenik gabe, «ikasle guztientzako eskola irekia» sortuz.

Txostenaren ondorioetan, batzordeak helburu nagusia aipatzen du, alegia, «bost urteko epearen barruan, hezkuntzan berdintasuna guztiontzako errealitatea izan dadin, baliabide eta jarrera positiboak sortu behar dira» (Eusko Jaurlaritza, 1988:75). Txostena, Euskal Hezkuntza Sistemarako dokumentu historiko eta berritzailetzat har daiteke Heziketa Bereziaren ulermenean, oinarritzko gomendio eta aldaketak barneratzen baititu, sistema desberdin eta autonomo moduan eratuz, sistema arruntetik desberdinduta, baina berak duen garrantzia mantenduz. Ondorioz, hezkuntza aldaketetako eta eskolako integrazioarako paradigma izatera iritsi da.

Iritzi hau indartuz, Arartekoak (2001:74), irizpide hau aipatzen du eta zera dio: «Aldi honetan gure Erkidegoko arautegiaren garapena inspiratzen zituzten txosten eta printzipio desberdinak, nazioarte mailan ezgaitasuna duten pertsonen jasotzen duten hezkuntza erantzunekin bat etortzeaz gain, osatu ere egiten dira». Horrela, hamarkada honetako zenbait dokumentutan, besteak beste, hurrengo printzipio hauek jasotzen dira:

- Aukera-berdintasuna.
- Ikastetxe arruntetan eta sistema arruntean eskolatzea.
- Haurraren zentratutako Pedagogia.
- Irakaskuntza malgua.

LOGSEK, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorreko legeak (urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa), Estatu osorako hezkuntza sistemaren antolaketa berria arautzen du, besteak beste, hezkuntza bereziaren arloan izan beharreko esku hartzea.

Euskal Autonomi Elkarteak (EAE), bere Autonomi Estatutuan oinarrituz (16. art.) eta Konstituzioaren 27. artikuluari eta berau garatzen duten lege organikoei kalterik egin gabe, Euskal Eskola Publikoaren Legea egin zuen (otsailaren 19ko 1/1993). Lege hau, guztion hezkuntza-eskubidean eta berdintasunaren kontzeptuan oinarritzen da, LOGSEren 63.3 artikuluan aipatua, non zera esaten den: «Estatuak eta Autonomi Elkarrekin osabidezko hezkuntzaren lehentasunezko helburuak finkatuko dituzte» Autonomi

Elkarteei proposa dakizkielarik izaera horretako programa zehatzak, Bosgarren Tituluan aurreikusten den moduan.

4. EUSKAL HERRIAN HEZIKETA BEREZIAREN ARLOAN LAUROGEITA HAMARREKO HAMARKADAKO ARAUDIEN GARAPENA

«Muinbakarrekoa eta integratzailea den eskola» (1988) Txostena oinarriko erreferentetzat hartuz, eta helburua hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleriaren kolektiboan zentratuz, hezkuntza-premia bereziak kontzeptua honela ulertzen da: «ikaslearen beraren gainetik agertzen den fenomeno erlatibo eta interaktiboa da eta gizarte-hezkuntza testuinguru zehatzean kokatzen da» (Eusko Jaurlaritza, 1988). Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko dokumentuan agertzen eta islatzen diren iradokizunen ezarpen kontzeptuala eta normatiboa, inplikaturako partaide guztiek pixkanaka jarri zuten martxan, hezkuntza eta gizarteko sektore desberdinek partekatutako estrategia bailitzan.

1982ko Euskal Herriko Hezkuntza Bereziko Planak hezkuntza-erantzuna ikasleriaren behar desberdinetara egokitzeko erakundeetako ahalegina agerian uzten bazuen ere, LOGSEk, Lege Organikoa zen heinean, hezkuntza-premia berezien kontzeptua sartu zuen ordenamendu juridikoan, Batzorde Kudeatzaileak (1988) dagoeneko erabiltzen zuen adiera, hain zuzen ere. Zailentzarik gabe, LOGSEk garatzen zuen ikuspegi arautzailean, Normalizazio eta Integrazioaren printzipioek izan zuten eragina. Solak (1997: 401) honela laburtzen ditu:

1. Hezkuntza berezia hezkuntza arruntetik desberdindutako eredu bezala desagertzen da (36.1 art.).
2. Hezkuntza-premia berezien ebaluazio psikopedagogikoa finkatzen da (36.2 art.).
3. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntzaren oinarriko euskarri bezala, eskola-normalizazioa eta eskola-integrazioa printzipioak onartzen dira (36.3 art.).
4. Ebaluazio formatibo eta prozesuala da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako egokiena (36.4 art.).
5. Eskola-laguntza eta hezkuntza-baliabideak (giza eta material-baliabideak) eskaintzea arautzen da (37.1 art.).
6. Estimulazio goiztiarra finkatzen da (37.2 art.).
7. Zentro espezifikotako eskolatzea mugatzen da eta zentro arruntekin koordinatu beharra zehazten da (37.3 art.).
8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-arretan, gurasoen partehartzea arautu eta onartzen da (37.4 art.).

Solak (1997:401) pentsamendu ildo honetatik abiatuz, LOGSEk V. kapituluaren eta «heziketa berezia»-ren izenburupean, aniztasunari eskaini be-

harreko arretaren inguruko araudia jasotzen duela dio, eta era berean, 36 eta 37 artikuluetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretaren inguruko gaiak arautzen direla esaten du. Horrezaz gain, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretarako beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla esaten da 36. artikuluan, gaitutako talde profesionalen espezializazioa baloratzuz eta 37. artikuluan aniztasunaren inguruan lanean arituko den irakasleriak izan beharreko hasierako prestakuntzaren alde agertuz.

Erreferentzia eta ekintzarako eremu honetan, Euskal Eskola Publikoaren Legea sortzen da (1993ko otsailaren 19an), non hezkuntza-premia bereziei erantzuteko balorazio eta arauak jasotzen diren, planteatutako ekintzek eskola komunitate eta gizarte osoari onura ekar diezaien. Izan ere, 3.1. artikuluan, eskola, bere osotasunean eta ikastetxe bakoitza partikulariki honela definitzen da: «askotarikoa, elebiduna eta demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzuan dago, gizarte zein kultur mailan inguruan sustraiturik dago, partehartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna integratzen du». Araudi horretan bertan heziketa bereziari dagokionean, 10.4. artikuluan, zera zehazten da: «Bestalde, gorputz-nahiz adimen-egintasanak dituztenei laguntzeko banakako neurriak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntzako premia bereziak aurrezaintzeko, garaiz antzemateko, testuingurua kontuan hartuz ebaluatzeko eta behar berezi horiei erantzun egokia emateko neurriak hartuko dira. Ahal denean, behintzat, gela arruntetan eskolatuko dira ikasle guztiak, eta behar-beharrezko denean baino ez ikastetxe arruntetako heziketa bereziko geletan. Ezinbesteko izan dadinean, heziketa bereziko ikastetxeetan emango zaie heziketa ikasle horiei».

Ildo honi jarraituz eginkizun orokorretan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak sartzeko, uztailak 14ko 195/1992 Dekretuan, Euskal Herriko Curriculumara Garatzeko eta Irakasleriaren Prestakuntzarako Erakundea sortzen da (CEI-IDC), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardurapean. Hezkuntzaren erreforma-prozesua martxan jartzeko, erakunde horren eginkizuna, laguntza eta aholkularitza emateko baliabide teknikoak izango da. Aholkularitza hori, batez ere, curriculumara diseinatzeke eta planifikatzeko ekintzetan, hezkuntza-premia bereziei eman beharreko laguntzan eta irakasleen prestakuntza iraunkorrean oinarritzen da.

Urtarrilaren 23ko 9/1990 Dekretuaren bidez, bi urte lehenago sortutako Baliabideen Ikastetxe Espezialdua desagertu zen eta bere eginkizunak CEI-IDCk hartu zituen bere gain.

Harrezkero, 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren garapenagatik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako curriculumaren egokitzapenak arautzen dira. Ekainaren 21eko 213/1994ko Dekretuan, bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumara ezartzen da, honetan ere, aurrekoetan bezala, curriculumaren egokitzapen kontzeptua ere onartu zen. Urte berean, azaroaren 22ko 447 Dekretuak Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorrari argi berdea ematen zaio eta bertan, hezkuntza-premia be-

reziak dituzten ikasleen curriculumaren egokitzapenetan jarraitu beharreko jokaera-irizpideak jasotzen dira.

Hala ere, 1995. urtera arte, ez dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak definitzen, azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoa argitaratu arte, eta lege hau uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4. artikuluan oinarritzen da. Beraz, hezkuntza-premia bereziak dituztenen populazioa honela definitu zen: ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak izateagatik, portaera-arazo larriak edukitzeagatik edo egoera sozial edo kultural txarretan egoteagatik, eskolatze-aldi batean edo prozesu osoan laguntza eta arreta berezia behar duena (Eusko Jaurlaritza, 1999:31).

1995eko Lege Organikoak egiten dituen azalpen hauek, Euskal Eskola Publikoaren Legean planteatzen zena garatzen du «Euskal Eskola Publikoaren printzipio eta xedeak» epigrafepean, 3.1-a eta f artikuluetan: «Konstituzioak aitortutako hezkuntzarako eskubideaz benetan baliatu ahal izatea bermatzea, hori galarazten duten ekonomi eta gizarte-oztopoak edo beste edonolakoak ezabatuz» eta «Ikasleen jatorrizko ezberdintasunak berdintzeko, maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan jardutea».

Erabaki hauen ondorioz, Agindu berezia onartu zen, ezgaitasun-egoera eta egoera sozio-kultural txarretan daudenei sortzen zaizkien hezkuntza-premiei erantzuteko. Horregatik, urtarrilaren 23ko 25/1996 Dekretuak, DBHko Curriculum-proiektuari buruzko 16. artikuluan aurkezten ziren helburuen artean, besteak beste, zentro bakoitzak hezkuntza-premia berezien trataerari buruzko, gutxienez, erabaki bat izan behar zuela zioen, etapako helburu orokorrak zentroko testuinguru sozio-ekonomiko eta kulturalera egokituz.

Urte berean, oinarritzko arauaren izaera duen apirilaren 24ko Ministro-Aginduan, talentu aparteko ikasleei sortzen zaizkien hezkuntza-premia bereziei erantzuteko derrigorrezko eskolatze-aldiaren iraupena arautzen da, salbuespen modura (Eusko Jaurlaritza, 1999:31).

1997ko uztailaren 9ko aginduak, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen ditu (EHAA, 97/07/29) eta 8. artikuluan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioari buruz, zera dio: «Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, beharrezko curriculum-egokitzapen nabarmenak banako programan sartuko dira. Horrelako programen onarpen-prozesua DBHko 2. zikloko banako curriculum-egokitzapenetarako ezarritako berbera izango da».

Araudiaren aurrerapen honek, muinbakarreko eta integratzailea den eskolaren barruan, premia bereziak dituzten ikasleen integrazioa hobetzeko bidean, EAEaren erantzuna 1998tik islatzen da Dekretu baten (ekainaren 23ko 188/1998), hiru Agindu (uztailaren 30ekoak bi eta uztailaren 24koa bestea) eta Ebazpen baten bidez (1998ko uztailaren 24koa). Araudi horretan, printzipio eta jardunbideak jasotzen dira, hezkuntza-sisteman dauden maila eta etapa guztietan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hez-

kuntza-erantzun egokia bideratuko duen politika orokorraren garapena markatu dutelarik.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (EHAA, 98/7/13), era berean, honako hauek arautzen ditu: «behin-behineko edo behin betiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta antolatzeko behar diren bitartekoen plangintza. Hezkuntza-premia berezien jatorria izan daiteke ikaslearen hezkuntzako eta eskolako historia, ikasleak berak izan ditzakeen gaitasun handiagoak, ikasleak berak izan ditzakeen ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentimenekoak edo gizarte eta kultura-egoera kaltetua» (Eusko Jaurlaritza, 1999:44).

1998ko uztailaren 24ko Aginduak (EHAA, 98/8/31), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen zituen: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeako prozedura. Lehenago aipatutako 118/1998 Dekretuak, 8. artikuluan, curriculum egokitzapenen inguruan zera erabakitzen du: «Ikastetxeek curriculumaren egokitzapenak proposatu beharko dituzte hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, baina, beti ere, egokitzapen horiek ikastetxe-ko pedagogi autonomia gainditzen dutenean. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu beharko ditu proposatutako egokitzapenak». 8.5 artikuluan honela jarraitzen du: «agindu baten bidez, noren eskumena den curriculumaren egokitzapena eta horiek lantzeko, garatzeko eta ebaluatzeako jardunbidea ezarriko du».

Uztailaren 30eko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren hurrengo Aginduaren helburua zera da (EHAA, 98/8/31): beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzea, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helaraztea. Helburu hori lortzeko, «ikastetxerik egokiena ohikoa izaten da. Izan ere, baliabide egokiez hornitzekotan, horixe da ikasle bereziarentzako ingururik irekiena eta integratzeko modurik onena. Beraz, bertan eskolatuko da, beste ikasle guztiak bezala. Ikastetxe eta gela bereziak benetan ezinbestekoak direnean baino ez dira erabiliko» (Eusko Jaurlaritza, 1999, 67).

Azkenik, 1998ko uztailaren 24ko Erabakiak, (EHAA, 98-8-31), aparte-ko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei, hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen du eta honako xede hau du: «eskolatze-aldia malgutzeko eskatzeko zer egin behar den zehaztea; zein ebaluaketa beharko den zehaztea; aparte-ko curriculum-neurriak erregistratzeko sistema zehaztea (halakorik hartu behar bada); eta aparte-ko gaitasunak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzunak zer-nolakoa izan behar duen argitzea».

Ikuspegi honetatik, aurreikusitako araudi desberdinek, eskolan zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna bideratzeko, zen-

bait irizpide bultzatzen ditu, baita gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan dauden ikasleena ere.

Arauen garapen hau bukatzeko, Arartekoak egindako Txostena aipatu beharra dago: *EABko Hezkuntza-Premia Bereziari Emandako Erantzuna* (2001:73). Txosten honetan, EAEn gaur egun garatzen diren arauen azpian dauden helburuak eta jarduera-printzipioak jasotzen dira:

- Aukera-berdintasunaren printzipioa garatzea. Horretarako, halaber, desorekak konpentsatzeko ekintzak gauzatu eta ikasleen aniztasunerako erantzun egokia egituratu behar da.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek hezkuntza-helburu orokorrak lortuko dituztela bermatzea, euren gaitasunen arabera. Horretarako curriculum orokorra malgutzeko mekanismoak ezartzen dira.
- Hezkuntza-helburu horiek, ahalik eta inguru malguenean eta ahalik eta integrazio handienarekin lortzea. Horretarako, ikasleak behar bezalako laguntzak dituzten ikastetxeetan eskolatu behar dira, baliabide bereziak ezinbesteko egoeretan soilik erabiliz.

Helburu horiek, era berean, lau jarduera printzipiotan oinarritzen dira:

- Normalizazioa eta eskola integrazioa.
- Jatorrizko desoreken hezkuntzaren bidezko konpentsazioa.
- Legezko ordezkariak eta ikasleek eurengan eragina duten erabakietan parte hartzea.
- Erakunde mailako lankidetzak.

Ondorio modura

Gaur egun ikasleen hezkuntza-arreta, etengabeko berrikuntza, gaurko-tze eta egokitzapenarekin lotua dago, horrek bermatuko baitu planteamendu europar eta berritzaileen bidean, hartu beharreko erabakiak eta aniztasunari eskaini beharreko etengabeko arreta.

Warnock txostenak (1978) hezkuntza-sistema ingelesa aldatu eta muinbakarreko eredurantz bideratu zuen; ondorioz, ikasle guztiek eskola arruntera joateko zuten eskubidea zabaldu zen. Azken urte hauetan, aldaketa ugari izan dira heziketa bereziaren inguruan, lehendabizi urritasunaren posizio inatista eta deterministak lehentasuna izan zuen, geroago, heziketa bereziaren sorrera gertatu zenenean, ez-gaitasuna zuten pertsonak heziketa espezialdua jasotzea onartu zen eta azkenik, jarrera demokratikoa duten herrialde guztietan gertatu zen aldaketaren ondorioz, bereak egin dituzte helburu integratzaile eta normalizatzaileak, horretarako, hezkuntza-politikaren inguruan eta ordenamendu legeetan beharrezkoak ziren aldaketak eginez.

Integrazioa eta heziketa bereziaren arteko eztabaida amaiezinak, azkenean, proposamen erradikalagoak formulatzeari eman dio bidea, hezkuntza

eta eskola inklusiboaren aldeko mugimenduei, alegia. Gizarteak ez-gaitasuna duen pertsona kide moduan onar dezan, gizabanakoari interes gunea kendu behar dio eta bere garapenerako beharrezkoak diren inguruko alaketetan zentratu behar du.

Laburbilduz, Heziketa Bereziaren inguruan Euskal Autonomi Erkidegoko arautegiari egindako hurbilpen honetan antzematen da, batzuetan, gure Erkidegoa, Gobernu Zentraleko zenbait planteamendu, arau eta ebazpenen aurretik ibili dela eta beste batzuetan, berriz, bilakaera paraleloa izan duela. Egoera honek hezkuntza ikuspegi orokorretik koherentzia erakusten du, eta modu zehatzagoan, heziketa bereziaren ikuspegitik. Gizartearen kezkei erantzuna eman nahian, berrikuntza, gaurkotzea eta egokitzapena antzematen dira lege desberdinetan, horiek bermatuko baitituzte, planteamendu berritzaile eta europarrak kontuan hartuta, estrategia orientatzaileak eta aniztasunari behar bezalako arreta ematea.

Hezkuntza-premia bereziak, gaur egun, interaktiboak eta erlatiboak dira, dirala pentsatzen da eta hezkuntza-sistema arruntan integratzen den gizarte-eta hezkuntza-testuinguru zehatzean daude. Horregatik, aniztasuna modu integratzailean onartzen duen eskola muinbakarrean, ikasle hauek eskolatzeko egokirako beharrezkoak dituzten baliabide, tresna eta laguntzak eskaintzen dira.

Gaur egun, inklusioa da hezkuntza-mailan oztupoak gainditzeko bidea. Inklusioak zera suposatzen du: guztientzako eskola, ikasleriaren aniztasunari aurre egiteko ikastetxeetako kultura, politika eta praktikak aldatzea, ikaskuntza prozesuan gerta daitezkeen oztupoak gainditu ahal izateko. Aniztasunak ez du izan behar konpondu beharreko arazoa, guztion ikaskuntza aberasteko bidea baizik.

Printzipio hau zabaltzeko asmoz, «Hezkuntza-premia bereziei erantzuna, guztientzako euskal eskolan: Guztientzako Eskola Biltzarra» ospatu zen Donostian, 2003ko urriaren 29, 30 eta 31n. Kongresu honen helburua integrazio jardunean guztientzako eskolaz hausnarketa egitea izan zen.

Araudietan ere, filosofia hau jasotzen hasiak direla ikus daiteke, ikusteko zailtasunak dituzten ikasleen hezkuntza inklusiorako baliabideetegi buruzko azken dekretuan (martxoak 1eko 40/2005), hain zuzen ere. Horretarako eskola eta hezkuntza-komunitateen arteko harremanak indartu beharko dira, eskola inklusiboa izango baita gizarte inklusiboa eta kalitatezko eskola eraikitzeko bidea. Beraz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ikasteko dituzten oztupoak gainditzeko, hezkuntza programak eta proiektuak bultzatu beharko dira; inklusioa eta hezkuntza-praktika onak aurrera daramaten ikastetxeen arteko lotura sortu, zailtasunak gainditzeko beharrezkoa den laguntza eman eta hezkuntza-inklusioren aldeko familia mugimenduak ere bultzatu beharko dira.

Jasotze-data: 2006-03-17

Onartze-data: 2006-04-06

Through this reflection, an attempt will be made to present an approximation of the legislative standard, as well as its evolution in the Basque Country regarding the Special Education standard, whose starting point is found in the educational policies which emerged from the Standardisation principle. As it is possible to observe in the evolution of the different laws, the Basque Country Autonomous Community, at some moments, has been ahead of the approaches, standards and resolutions transmitted by Central Government and in others it has evolved the specific orders which were sent from Central Government to the Basque Country Autonomous Community in parallel.

Keywords: *Special education. Legislation. Normalization. Inclusion.*

A través de esta reflexión se pretende presentar una aproximación a la referencia legislativa, así como, a su evolución en la Comunidad Autónoma del País Vasco respecto a la normativa de Educación Especial, cuyo punto de partida se sitúa en las políticas educativas surgidas a partir del principio de Normalización. Como se puede observar en la evolución de las diferentes leyes, la Comunidad Autónoma del País Vasco, en algunos momentos, se ha adelantado a los planteamientos, normativas y resoluciones emitidas por el Gobierno Central y, en otras ocasiones, ha evolucionado de forma paralela a las órdenes específicas que se han emitido y trasladado del Gobierno Central a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Palabras clave: *Educación Especial. Legislación. Normalización. Inclusión.*

Par l'intermédiaire de cette réflexion on prétend présenter une approximation à la référence législative, ainsi qu'à son évolution dans la Communauté Autonome du Pays Basque par rapport à la réglementation de l'Éducation Spéciale, dont le point de départ se situe dans les politiques éducatives qui sont surgies à partir du principe de Normalisation. Comme on peut observer dans l'évolution des différentes lois, à certains moments, la Communauté Autonome du Pays Basque a été en avance par rapport aux exposés, aux normes et résolutions émises par le Gouvernement Central et, dans d'autres occasions, elle a évolué de manière parallèle suivant les ordres spécifiques qui se sont émises et transférées du Gouvernement Central à la Communauté Autonome du Pays Basque.

Mots clé: *Enseignement special. Legislation. Normalization. Inclusion.*

BIBLIOGRAFIA

- ARARTEKOA (2001). *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*. Bilbo: Ararteko.
- BANK-MIKKELSEN, N. (1979). «La normalización como objetivo de las actividades de la vida diaria». *Boletín de Estudios y Documentación del Inersero*, 15, 31-39.
- CURRICULUMA ERATZEKO ETA IRAKASLEGOA PRESTATZEKO INSTITUTUA-INSTITUTO PARA EL DESARROLLO CURRICULAR Y FORMACIÓN DE PROFESORADO (CEI-IDC) (1999). *Normativa del País Vasco sobre necesidades educativas especiales*. Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1983). *Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua*. Argitalpen Zerbitzu Nagusia Lehendakaritza Saila. Eusko-Jaurlaritz. Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1989). *Eskola muinbakarra eta integratzailea*. Hezkuntza Bereziko Batzordearen Txostena. Pedagogi Berrikuntzako Zuzendaritza. Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1998). *Normativa para la supresión de barreras urbanísticas y arquitectónicas*. Vitoria-Gasteiz: Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco.
- FERNÁNDEZ, G. (1995). *Estudio de las actitudes del profesorado de los centros ordinarios de Vizcaya hacia la integración escolar*. Bilbao: Publicación del Departamento de Pedagogía de la Universidad de Deusto.
- GOBIERNO DE NAVARRA (1999). *Necesidades Educativas Especiales en la ESO*. Pamplona: departamento de Educación y Cultura.
- GOBIERNO VASCO (1998). *Normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Educación* (Enseñanza no universitaria) Vitoria-Gasteiz. Servicio de Publicaciones.
- JIMÉNEZ LARA, A. (2001). *Memoria extracto del Real Patronato (1976-2001)*. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales.
- SÁNCHEZ, C., BOTÍAS, P. eta HIGUERAS, E. (2002). *Supuestos prácticos en Educación Especial*. Barcelona: Praxis.
- SÁNCHEZ, P. eta TORRES, G. (1997). «De la educación especial a las necesidades educativas especiales: aproximación histórica, marco conceptual y legislativo». En MAYOR, J. (koord.). *Manual de Educación Especial*. Madrid: Pirámide.
- SOLA, M. (1997). «La formación inicial y su incidencia en la educación especial». En MAYOR, J. (koord.). *Manual de Educación Especial*. Madrid: Pirámide.

Lege, dekretu, agindu eta ebazpenak

- 1978ko Espainako KONSTITUZIOA (EAO, 78-12-29). 49.artikula.
- 3/1979 LEGE ORGANIKOA. Euskal Herriko Autonomi Estatutua (EAO, 36.zenk., 79/12/22).
- Martxoaren 23ko 59/1981 DEKRETUA, Hirigintza-oztopoak kentzeko araupideei buruz (81/05/21).
- Apirilaren 7ko 13/1982 Legea, Minusbaliatuak Gizarteratzeko LEGEA (EAO, 12.zenk., 82/04/30).

- «Gizarte-Zerbitzuak», Maiatzaren 20ko 6/1982 LEGEA. (EHAA, 82-06-02).
- Hezkuntza Sailaren 1982garreneko Irailaren 2ko AGINDUA, euskal Herriko Autonomia-Elkarteango Berariazko Hezkuntzako Irakaskuntza araupetuz.
- Martxoaren 6ko 334/1985 ERREGE DEKRETUA, Heziketa Berezia arautzen duena (EAO, 85-03-16).
- Uztailaren 3ko 8/1985 LEGE ORGANIKOA, Heziketarako Eskubidea arautzen duena (EAO, 85-07-04)
- Apirilaren 11ko 969/1986 ERREGE DEKRETUA, Heziketa Berezirako Baliabide Zentro Nazionalaren sorrera arautzen duena (EAO, 86-05-21).
- Ekainaren 14ko 154/1988 DEKRETOA, Pedagogiazko Aholkularitza-Tegien sortze eta ihardutze-modua araupetuz (EHAA, 88-06-24).
- Urriaren 3ko 1/1990 LEGEA, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorra arautzen duena (EAO, 90-10-04).
- 195/1992 DEKRETUA, uztailaren 14ekoa, Ikasketa-planak Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Euskal Herriko Institutua sortze duena (EHAA, 92-07-20).
- 203/1992 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Ingurugiroarekiko Hezkuntza eta Ikerketa Zentroen eta Pedagogi Aholkutegien sorrera eta jardute modua arautzen dituzten Dekretuak aldatzen dituena (EHAA, 92-07-31).
- 1/93 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (EHAA, 93/2/25).
- 10/1994 LEGEA, ekainaren 17koa, Euskal Eskola Publikoari Buruzko Legearen 10.4 atala aldatzeari buruzkoa (EHAA, 94-07-15).
- 25/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomi Elkartearen derrigorezko bigarren hezkuntza ezartzen duena (EHAA, 96-01-26).
- 118/1998 DEKRETUA ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integraztailearen esparruan antolatzen duena. (EHAA-98/7/13)
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura. (EHAA-98/8/31).
- ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa- premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena. (EHAA-98/8/31)
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat. (EHAA-98/8/31)
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko. (EHAA-98/8/31).
- AGINDUA, 1998ko abenduaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1998ko uztailaren 24ko Agindua aldatzen duena; agindu horrek

hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen ditu: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura. (EHAA-99/1/19)

15/2001 DEKRETUA, otsailaren 6koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortzen dituen, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa (EHAA, 01-02-16).